

Euskal Udalekuak

Maddi Aiestaran
IPARRAGIRRE

Bederatzi-hamar urte genitue-
nean, eskolako lagun batzuen
gurasoek, gurekin batera,
kontatu ziguten haiek gazte-
txoak zirenean ez-dakit-ze tokitara joa-
ten zirela udan egun batzuk pasatzera.
Euskal Herriko txoko diferenteetako
jende pila bat elkartzen omen zen han.
Haien adin bueltako lagun berriak egi-
ten omen zituzten, Larraulgoak, Hazpar-
nekoak, Aguraingoak, Lekunberrikoak.
Guk ez genekien non zeuden herri
haiek. Baina inbidiaz begiratzen genien
ezagutzen ez genituen herrietako lagu-
nak zituzten eskola-kideei; eta hortaz,
guraso haiei, momentu hartan. Urte
osoan zehar biltzen omen ziren han

ezagututako jendearekin: udalekuetako
lagunekin hasieran, proiektuko kidee-
kin gero. Patio ordu batean, hamaiketa-
korako eramandako sagarrari hozka
gehiago egin nahi ez geniolako baranda
baten gainean igo-jaitsi jolasean genbil-
tzan hiru lagun aritu ginen guraso haiek
kontatutakoaz hizketan. Inoiz udalekue-
tara joan ez diren bederatzi-hamar urte-
ko herriko hiru lagunek imajinatu ditza-
keten zera handienak, dibertigarrienak,
izugarrienak imajinatu genituen. Arra-
tsalde hartan, edo handik pare bat egu-
nera, Euskal Udalekuetan apuntatu gi-
nen hirurok batera.

Bernedon pasatu genituen hamar bat
egun uda hartan. Txoko diferenteetako

jende pila bat elkartu ginen, gure adin
buelako lagun berriak egin genituen,
ezagutzen ez genituen herriak, euskal-
kiak, abestiak, jolasak, ideiak, moduak
ezagutu genituen; aurrerantzean ger-
tuagotik eta sakonago ezagutu ditugu-
nak, udatik udazkenara eta udaberritik
udara, Bernedotik Goñira eta Goñitik
Abaigarrera.

Bereziak izan ziren Euskal Udalekuak
guretzat, bederatzi-hamar urte genitue-
nean; bereziak dira gaur. Horregatik
nahi nuke baliatu toki hau, adierazteko
zabal-zabalik ditugula ateak, leihoak,
besoak, izen-emateak, hala udalekuetan
nola proiektuan parte hartu nahi due-
narentzat. •

«Chambre»-ak

Joxean AGIRRE

Gazteek, autonomiarekin bizi
ahal izateko, etxebizitza ba-
na behar dutela entzuten
dudan bakoitzean, gure ga-
raiko *chambre*-ekin gogoratzen naiz.
Hamar metro koadro izango zituzten
eta gutxi edo gehiago zoriontsu izan gi-
nen. Eta baginen gela horietan bikote
bizitza egiten genuenak ere. Egia da
otorduak unibertsitateetako jantokie-
tan egiten zirela, baina horretara jarritz
gero, gaurko gazte askok ere gurasoek
prestatutako tuperrekin egiten dute as-
te erdia.

Demagun gaurko gazteak gu baino al-
tuagoak direla oro har, baina ikasketak
bukatzen edo lanean lehen pausoak
ematen ari diren bitartean, 25-30 urteta-
ra arte alegia, hamabost-hogei metroko

gela bat aski lukete, hori baita herrialde
batzuetan hoteleko gelen batezbeste-
koa.

Irtenbidea, beraz, gazteentzako etxe-
bizitzak egin beharrean gazteentzako
gelak egitea litzateke, eta gela horiek,
gure garaiko neskameen *chambre*-ak
bezalaxe, teilatupean beharko lukete,
gaur trastelekuek okupatzen duten so-
lairu galdu horretan. Teknikoki ez diru-
di zaila denik, ezta kudeatzeko formulak
aurkitzea ere. Zaila benetan etxegilee-
kin itunak lortzea izango litzateke. Gau-
za bat dago garbi, gazteentzako alokai-
ruko etxebizitzak baino merkeagoak
izango lirake.

Chambre horietan bizitzen dagoen
gazteak denbora izango luke ikasketak
bukatu, lanean hasi, diru pixka bat au-

rreratu eta, mailegu bat tarteko, etxe ta-
xuzko batean sartzeko.

Badakit fikzio hauek ez dutela ezerta-
rako balio, nahiz eta niri gaztetako ur-
teak gogoratzeko balio izan didaten. De-
na den, mirari bat tarteko, norbaiti
eraikin baten gainean gisa honetako ge-
lak egitea bururatuko balitzaio, bereha-
la aterako litzateke psikologo talderen
bat prentsara, esanez gazteek osasun
mentalean dituzten arazoak areagotze-
ko bakarrik balioko dutela. Beraz, segi
dezatela gazteek gurasoekin bizitzen.

Lerro hauek idatzi ondoren jarri naiz
pentsatzen guk ere baditugula gure go-
rabeherak osasun mentalarekin, baina
seguru nago ez zirela jaio Parisko gan-
bara estu haietan denbora gehiegiz bizi
izan ginelako. •